

## MEKANIKA, ELEKTRONIKA ETA AUTOMATIKA IKUSPUNTU PRAKTIKO BATETIK

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua/k:**
  - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa +  
Industria Elektronikaren eta Automatikaren  
Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza, 1. Donostia

### 1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Euskal Herria industria tradizio handiko eskualdea da, eta bertan fabrikazioa, automobilgintza edo energia sortzea bezalako sektoreek garrantzi ekonomiko handia dute. Testuinguru horretan, bai elektronika, bai automatika eta baita makina-erreminta ere funtsezko papera jokatzen dute gure enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko. Elektronika eta automatika giltzarriak dira industriaren eraldaketa digitalerako, prozesuen automatizazioa, eraginkortasun energetikoaren hobekuntza eta produkzioa optimizatzen duten soluzio adimendunen garapena ahalbidetuz. Bestalde, makina-erreminta, historikoki euskal industriari lotua, funtsezko zutabe izaten jarraitzen du fabrikazio aurreratuan, sektore aeronautikoa, automobilgintza eta makineria-eraikuntza bezalako sektoreetarako oso zehaztasun eta kalitate handiko osagaien garapenean lagunduz.

Jardunaldi hauetan, ikasleek makina-erreminta, elektronika eta automatizazioaren mundu liluragarria ezagutzeko aukera izango dute. Praktika interaktiboetan parte hartu ahal izango dute, non doitasun-makinen oinarrizko funtzionamendua behatu eta egiaztatuko duten, kontrol automatikoaren printzipioak ikasiko dituzten eta teknologia modernoa industria-prozesuetan nola aplikatzen den deskubrituko duten.

### 2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

#### 1. Torneaketa edo fresaketa CNC makina batean

Makina nola programatzen den azalduko zaie, ebaketa zehatzak egiteko eta abiadura edo aurrerapenaren parametroak nola kontrolatzen diren ulertzeko. Gainera, makinak erabiltzen duen G kodea sortzen duen simulazio softwarearekin elkarreragin ahal izango dute.

**Helburua:** Makina-erreminta modernoek nola funtzionatzen duten eta osagai zehatzak fabrikatzeko duten garrantzia praktikan erakustea. Ikasleek mekanizazio eta industriako automatizazio kontzeptuak ulertuko dituzte.

### 3. EGINGO DIREN EKINTZAK

---

#### I) Harrera eta taldeen antolaketa:

Laborategietan egingo diren praktikak aurkeztuko zaizkie.

#### II) Laborategietan jarduera praktikoak:

Titulazioko laborategiak ezagutuko dira, eta han egiten diren ekintzak adibide praktikoaren bitartez azalduko dira.

#### III) Inkesta pasako zaie

### 4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

---

Data	Hizkuntza	Txanda	Orduetgia	Plazak
2025-01-22	Euskara	Goizez	10:00 - 12:00	30
2025-01-22	Gaztelania	Goizez	10:00 - 12:00	30